



181. zenbakia

· URTARRILA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan

KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Latasako olentzero (Aritz Gorostiagak egina)

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urtarilaren 21e an bidalia

Olerkia



“

Kontrarioak

Armairuan saque
kontrariuan katue
etxe hontako limosnarekin
ez degu beteko zakue

Hor goien goien lainua
azpikoaldian atxua
hartako suak itzoko aldi ba
etxe hontako atxuak

Hor goien goien otia
guzia lorez betia
etxe hontako etxe alabak
auzoan dauka dotia

Poltzan baditut diru bi
batak bestea dirudi
etxe hontako etxe alabak
labe zatarra dirudi

”

Itsason, urtezaharretan etxez etxe kantuan aritzen ziren,
eta trukean deus ematen ez zuten etxeetan kopla hauek abesten zituzten



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Lehiaketara atera dute Latasako geltokiaren kudeaketa

Gutxi falta da Plazaola trenak Imotzen zeukan geltokiak berriz ere atea irekitzeko. Udalak zaharberritze lanak egin ditu, eta kudeaketaz arduratuko den norbaiten zain dago orain.

Horretarako baldintzak eta zereginak argitaratu ditu, eta Etxalekun, Imozko udaletxean dituzue eskuragarri, baina alderdirik garrantzitsuenak aipatu nahi ditugu hemen.

Geltokik ostatu eta jatetxe bat izanen du, oinarritzko produktuen denda batekin batera. Imotz eta inguruko produktuak izatea positiboki baloratuko du Udalak, hala nola ekologikoak izatea.

Horretaz gain, turismoaren informaziorako puntua izanen da, eta bizikletak alokatzeko aukera emanen du geltokiak. Horretarako Leitza eta Lekunberriko geltokiekin harremana izanen du, Plazaola Turismo Partzuergoan harremana

izanik. Oinarritzko produktuen dendak bizikletekin harremana duten materialak izan beharko ditu. Azkenik, pilotalekuaren kudeaketa ere egingen du.

Geltokiko langileei euskaraz jakitea eskatuko zaie, gutxienez B1 mailako gaitasuna izatea hain zuzen ere. Eta kudeatzaileek kontratazioak egiterako orduan, hauek emakumeak eta Imozkoak izatea hobetsiko da.

Irekiera ordutegiari dagokionez, neguko zein udako ordutegiak bereiziko dira. Asteburu eta jaiegun guztietan irekita egonen dageltokia, ordutegi zabalarekin, eta neguan astean bi egunez egonen da itxia, udan berriz, egun bakarraz.

Kudeaketarako proposamenak otsailaren 15a 13:00a baino lehen aurkeztu beharko dira Imozko Udalean. Aipatu bezala, bertan izanen duzue informazio zehatza.



▲ Latasako geltokiaren biltokia

Imotz eta inguruko produktuak izatea positiboki baloratuko du Udalak, hala nola ekologikoak izatea.



Ezkabatik ihes egin zutenen gor

Bala zauria duten hiru gazteren kaskezurrak aurkitu ditu Etulainen Aranzadi Zientzia Elkartek. Hezurak Ezkaban espetxeratuta egon zirenen hiru bilbotarrenak omen dira, eta guztira gerra zibilaren eta frankismoaren 84 biktima berreskuratu dira Nafarroan. Urteetan ihesaldia ikertu duen Fermin Ezkietak bildutako lekukotasunek lagunduta lortu dute aztarna horiek aurkitzea. Izan ere, herrian jakina zen 1938an, urte hartako maiatzaren 22an gertatuko ihesaldia eta gero, hiru gizonak, Burutaindik pasa ondoren, Etulainen izan zirela, eta bertan fusilatu zituztela. Historia osatu duten zenbait protagonistarekin hitz egin dugu, gehiago jakiteko: Paco Etxeberria forentsearekin, Fermin Ezkietarekin eta herriko jendearekin.

PACO ETXEBERRIA, ARANZADIKO FORENTSEA:

Hemendik 25 urte bitartera hori guztia topatzea ezinezkoa izango da, azkeneko aukera dugu hau



• ZER AURKITU DUZUE ZEHAZKI, 3 BUREZUR?

Etulainen jakina zen hiru pertsona erail zituztela Ezkabatik ihes egin eta beren buruak entregatu ondoren. Informazio hori ahozko lekukotasunengatik jakinak ziren, eta oinarri historikoa ere bazuten. Orduan, gure galdera zen, non lurperatu zituzten? Fermin Ezkietak egindako lanari esker, bagenekien bide bazterren batean sartu zituztela, eta handik urteetara, errepideko lan batzuetan agertu zirela. Handik hilerriko hezurtokira eramane omen zituzten. Hortik aurrera, beti egiten dugun modura, duela hilabete batzuk hilerria joan ginen, eta baimena eskatu ondoren, hezurak ateratzeari ekin genion, banan-banan. Metro erdiko sakoneran aurkitu genituen hiru gizonen buruhezurren zatiak, bala zauri bana agerian zutela. Hilketak fusilamenduen bitartez egin ohi zituztenez, ziurtasunez esan daiteke arrastoak hezurtokira eramandakoen iheslari horienak direla.

• AZTERTU ETA GERO, FAMILIARI ITZULTZEN AL ZAIZKIE GORPUZKIAK? ZEIN DA PROZEDURA?

◀ Paco Etxeberria, Etulaingo hilerrian burezurak aurkitu ondoren

Etulaingo kasu honetan, jaso diren lekukotasunengatik, jakina da hiru pertsona horiek Bilbokoak edo bizkaitarrak zirela. Orduan, erail zituztenen zerrenda hartu, eta bilatu beharko dugu zein ziren Bilbokoak eta Bizkaikoak. Familiarekin kontaktatzen saiatuko gara, DNA aztertzeke eta alderatzeko. Prozedura horren guztiaren helburua, sakonean, dena bide ofizialek egitea da, XXI. mendeak ematen duen ziurtasun tekniko forentsearea dela medio, kondaira bat besterik ez dela izan erran ez dezaten, hau da, inork hil ez zituela eta hau kondaira bat besterik ez dela erran ez dezaten. Eta ez da asmakizun bat inondik inora, kasu asko bildu baititugu dagoeneko, historialariek esandakoa ziurtatu dugu, besterik gabe, hainbat datu forentseren bidez.

• KASU ASKOTAN LORTU DA FAMILIA AURKITZEA?

Nafarroan asko identifikatu ditugu, baina badira muga teknikoak. Proba genetikoek bidez, hirutik bat identifikatzen dugu. Bestelako probak erabilita, beste irizpide batzuk baitaude, batzuetan ikasten dugu nor den. Hau da, bost badira, eta hiru identifikatu baldin badituzu, askotan badakizu nor diren beste biak. Nafarroan garai hartan eraildako pertsona ugari identifikatu dugu, eta modu ofizialean itzuli dizkiegu gorpuzkiak familiakoei. Hori oso garrantzitsua da, alegia, maila

goreneko ordezkaritza instituzionalek ematea gorpuzki horiek, eta Nafarroako Gobernuko buruek egiteaz ari naiz. Horrelakorik ez da gertatzen leku askotan; bai, adibidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Baina hori beste leku askotan ez da egiten, ez baitago horrelako inplikaziorik agintarien aldetik, eta askotan ekitaldi pribatuen bitartez egiten da. Hori ez da Nafarroan gertatzen, hemen, demokratikoki hautatutako ordezkariak ematen dituzte gorpuzkiak, giza eskubideen aldeko interesa badutelako.

• GARRANTZIA IZANGO DU FAMILIENTZAT, EZTA?

Nafarroan, familiek beti jakin izan dute hau guztia, guk ez dugu ezer berririk aurkitu, hau guztia jakina zen. Formalitaterik ez zegoela da arazoa, ez teknikorik, ezta instituzionalik ere. Eta hain zuzen ere, hori konpondu daiteke orain. Injustizia arazo bat dago, modu zuzenean landu ez diren gaiak dira hauek, ez direlako orain arte atenditu. Memoria historikoaren mugimenduarekin lortu den kontzientziazioa baliatuta, babes instituzionala ematea da helburua, alkateen, zinegotzien edo parlamentarien ordezkartzaren bidez, aurretik inoiz tratatua izan ez den gaia modu zuzenean konpontzeko.

• NAFARROAN, DAGOENEO, DIKTADURAN ERAILDAKO 84 PERTSONAREN GORPUZKIAK BERRESKURATU DIRA, EZKABATIK IHES EGIN ZUTENEN ARTEAN 200DIK GORA DAUDE DESAGERTUAK, AURKITUKO DIRA?

Beno, plan bat abian dago, eta 2019an jarraituko du; beraz, gehiago aurkituko ditugula ziur egon gaitezke.

Baina ez ditugu guztiak aurkituko, desagertutakoen ehuneko ehuna. Nafarroan 3.000 pertsonatik gora hil zituzten, eta inoiz ez ditugu aurkituko, denbora asko pasa delako eta hainbat gauza ez daudelako bere lekuan. Hortaz, eraildako bat aurkitzen dugun bakoitzean nolabait beste guztiak ere ekartzen ditugu gogora. Eta horrela gertatzen da Ezkaban ere, ahalik eta lasterrena egin behar dugu lan hori, edo inoiz ez ditugu aurkituko, mendian zailtasun asko direlako. Eskerrak jende asko prest egon dela hilobiak non dauden esateko, bestela ezinezkoa litzateke. Hemendik 25 urte bitartera hori guztia topatzea ezinezkoa izango da, azkeneko aukera dugu hau. 2019. urte honetan joango garen leku guztien zerrenda dugu, memoria elkarrekin batera eta babes instituzionalarekin, eta ahal ditugun guztiak bilatuko ditugu, ikusiko dugu aurkitzen ditugun edo ez, baina ahaleginak egingo ditugu, noski.



▲ *Los fugados de Ezkaba, Fermín Ezkieta Yabenek idatzia*

Fermín Ezkieta Yaben

Los fugados del fuerte de Ezkaba

Fermín Ezkietak urteak daramatza Europako ihesaldirik handiena ikertzen, San Kristobal gotorlekutik, 1938ko maiatzaren 22an 795 presok ihes egin zutenekoa, hain zuzen ere. Horietatik hiruk bakarrik lortu zuten Frantziara iristea: “2013an idatzituen liburua, Frantziara heltzea lortu zutenen biografiekin, eta ihesaldia antolatu zutenen 30 presoren historiekin. Baina aurrerago pentsatu nuen, eta zer gertatzen da desagertuta dauden 206 horiekin?”. Beren historia ezagutzeko herriz herri ibili zen, hangoen lekukotasunak jasotzen. “Herri bakoitzean bada kontatu behar den historia bat, eta hangoek ezagutzen dute, baina 80 urteko isiltasuna gordetzera behartuak izan dira”. 2017ko apirilean, Burutainen hobi bat aurkitu zuten, “Orduan 86 urte zituen Martín Laguardiaren testigantzari esker aurkitu genuen, eta oraindik galdetzen zigun ‘Ez al zait ezer gertatuko?’, barrea ere eragin dezake hain dramatikoia izango ez balitz”.

Hilobi guztiak aurkitzeko, bizilagunen testigantzak oso garrantzitsuak izan dira, bai Burutainen 2017an, baita Etulaingo honetan ere, “Guardia zibilek, militarrek, karabineroek edo falangistek harrapatu eta fusilatu zituzten, baina herriko jendeak lurperatu zituen. Beraz, Burutainen hobia Martín Laguardiak kokatu zuen moduan, herri bakoitzean izen bat esaten ahal dizut”. Etulainen Fermina Iraizoz zenaren lekukotasuna izan zen oinarria, “14 urterekin Obra Berria etxean zerbitzatzen zuen, eta ura eman zien Bilboko hiru gizon horiei. Burutaindik etorriak ziren, hain zuzen ere, han Lucia Larramendik ura ere eman zien ostatuan”. Ondoren errepede nagusiko bidegurutzera eramane zituzten falangistek, eta han hil zituzten.



gorpuzkiak eskualdean

Ezkabatik ihes egin zutenen

• ETULAINEN DAKITENA

1999an, Olagueko errepidea egin zutenean, hezurak agertu zirela zioen prentsaoharrak. Bainaherrianezdaude ados datarekin, lehenago egindako lanetan agertu omen ziren eta. Angel Larrayozek, Etxotondoko etxeokak, 70eko hamarkada inguruan kokatzen ditu hezurak agertu ziren lanak, eta oraindik lehenago izan zirela uste du Jesus Bizkarrondok: “Soldaduska egin gabe nengoen ni oraindik, horrela uste dut behintzat, 17 edo 18 urte izango nituen, eta 1945ean jaio nintzen”. Beraz 60ko eta 70eko hamarkaden artean egindako obretan aurkitu zituzten hiru gizonen hezurak. Rosario Zalbak, Palacio de Etulain etxeokak, eta Jesus Etxeberriak adierazten dutenez, palistak atera zituen hiru kaskezurrak bala zauriarekin. Orduan Olaguera eraman zituzten, baina bertan Etulaini egokitzen zitzaion zoruan agertu zirela esan zieten, eta Etulaingo hilerriko hobi komunean utzi zituzten, orain arte.

Angel Larrayozen etxe parean, Etxotondoko parean, zegoen Francisca Iraizozen etxea. Han izan zen Fermina Iraizoz ere, zerbitzatzen. Hango aterpera eraman omen zituzten hiru gizonak, Arrogain inguruetan harrapatu eta gero, eta bertara joan zen apaiza, “hil baino lehen konfesatzeko joan zen, eta gizon haietako batek erantzun zion, ‘io dira mandamentuak, eta **ez duzu hilko** esaten du bosgarrenak, baina gu berehala hilko gaituzue’, eta konfesorik eta apaizaren bendiziorik ez zuten nahi izan, Angel Larrayozek esaten digunez. Historia bera entzun dute Jesus Bizkarrondok eta Rosario Zalbak, azken honek zehaztasun gehiago ematen dizkigu: “Justo Taberna zen apaiza garai hartan, bera izan zen Faustino bataiatu zuena”.



▲ Francisca Iraizozen etxea, aterpe horretan egon omen ziren hiru iheslariak, bertara gerturatu zitzairen apaiza.

• ESKUALDEAN AURKITU DIREN HILOBIAK

Guztira, Nafarroan, Ezkabatik ihes egin zutenen 12 hobi aurkitu dira 2015etik hona, Ezkietakesatenduenek, 52 erailen hezurrekin: 7, 2015ean; 19, 2016an; eta 13, 2017an eta 2018an. Horrek esan nahi du 4 hildakotatik 1 aurkitu dutela, 206 lurperatu baitzituzten fusilatu ondoren. Eskualdean hobi ugari agertu da: Burutainen eraildako 7ren gorpuzkiak agertu ziren 2017an, beste batenak Olaben, 2018an, eta Etulaingo azken aurkikuntza hau orain, gutxi batzuk aipatzeagatik.

Tamalez, asko dira herri hauetan lurperaturik jarraitzen dutenak. Etsainen, aurreko urtean, hiru gizonen gorpuen bila ibili zen Aranzadi. Testigantzek diotenez, 38ko maiatz horretan, herritar bat bere bordara joan zelarik, sabaitik belarra erortzen ari zela ikusi zuen, norbait han zebilela nabaritu zuen. Herrira joan zen, eta frankistei abisua eman zien, eta horrela, hiru iheslariak harrapatu eta herrian bertan fusilatu zituzten. Ez da haien arrastorik aurkitu, ordea. Gauza bera gertatzen da Lantzen, Ezkietak azaltzen duenez, jakina da herriko sarreran 8 gorpu lurperatu zituztela, baina toki zabala da, eta ez dituzte aurkitu.



Burutainen 7 gorpuzki agertu ziren 2017an ▲




Apirilaren 8an pasako da korrika gure eskualdetik

Astelehengaua izanen da, Urritzatik Basaburura sartuko da, Ultzama eta Atez zeharkatu eta Muskiztik aterako da Irurtzun aldera.

21. Korrika apirilaren 4an hasiko da Garesen. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian emanen ditu lehenengo egunak, eta laugarrenean, apirilaren 8an igaroko da Imotz, Basaburua, Ultzama eta Ateztik.

▼ korrikak eskualdean izanen duen ibilbidea



Lekunberri aldetik etorriko zaigu, eta Urritzara arratsaldeko 20:25ean iritsiko da. Jauntsarats 21:17an zeharkatuko du, Larraintzar 22:29an, Gelbentzu 22:55ean eta Eritzegoiti 23:27an.

Beraz, korrikaren laugarren eguna eskualdean amaituko da, eta Muskiztik igaro ostean Irurtzuna joanen da Sakanako bidea hartzeko.

Urtarrilaren 14an ireki zen kilometroak erosteko aukera.

Nekazari bat zauritu zen Beuntzan

Traktoreari atxikita zuen lanabes baten hortza toraxean sartu zuen

Urtarrilaren 3an gertatu zen ezbeharra. Beuntzako soro baten traktorearekin lanean ari zen nekazari batek istripua izan zuen eta Nafarroako ospitalera eraman behar izan zuten.

35 urteko legasargazteak traktoreari atxikitazio lanabesaren hortza toraxean sartu zuen eta Foruzaingoa eta Suhiltzaileak hurbildu ziren artatzera eta lan-istripua erregistratzera.

▶ Traktoreari atxikitako lanabesaren hortza toraxean sartu zuen





Olentzero, Maridomingi eta err

Urtero bezala, eskualdeko mendietatik herrietara jaitsi dira Olentzero eta Maridomingi. Eguberrietako zita garrantzitsua izaten da gure ibarretako herri askotan, eta baita ikastetxeetan ere.

● OLENTZERO

Bisitarik goiztiarrena Aritzura izan zen. Herriko biztanleak ez ziren bikotearen zain zeuden bakarrik, Iruñeko Arrosadia eta Azpilagaña auzoetatik etorritako haur eta guraso ugari bildu ziren, urteroko legez, Aritzun. Aroztegin ere asteburu berean egin zioten Olentzerori ongi etorria, ateztar ugari bildu ziren ekitaldian.

Hurrengo bisita ikastetxeetara izan zen, Larraintzar eta Jauntsaratsa joan ziren ikazkina eta Maridomingi. Basaburuko Oihanzabal ikastetxera Olentzero joan zen bakarrik, eta hurrek koplak abesten egin zioten ongi etorri. Ondoren klasean egindako makilapainduak erre zituzten sutan eta ikasgelaz ikasgela hurrekin solasean igaro zuen goiza ikazkinak. Ondoren ikasleek prestatutako ikuskizunez betetako jaialdia egin zuten.

Larraintzarko ikastetxean ildo beretik jo zuten. Bisitaren ondotik, polikiroldegian elkartu ziren ikasle, irakasle eta gurasoak. Ikasle talde bakoitzak dantza edo abesti bana prestatu zuen eta denei erakutsi. Oso giro polita izan zen. Bi ikastetxeetako jaialdiek utzitako momenturik onena

bilduz bideo bat egin genuen, eta amezti.eus webgunean edo YouTube-ko Ameztiren kanalean ikusgai duzue.

Eta eguberri egunean, eskualdeko herri ugaritan ospatu zuten Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Lantzen, Olaguen, Anotzibarren, Latasan, Jauntsaratsen, Eltzaburun, Alkotzen, Iraizotzen, Gorrontzen... Hainbat herriko argazkiak bildu ditugu.



Olentzero eta Maridomingi Larraintzarren ▲



▲ Imozko haurrak latasako Olentzeron

ARRAIOA! [^]MANIPULATZAILE
MASTERRA DUEN KAZETARIA
BEHAR DA [^]

joxejabierrena



herri ugari bisitatu zituzten errege magoek

• ERREGE MAGOAK

Urte aldaketa eginda, errege magoak ere izan genituen eskualdean. Urtero bezala, Lizaso eta Olague bisitatu zituzten urtarrilaren 5ean, eta haurren gutunak jaso.



Errege Magoak Lizason ▲



**LARRAINTZARKO
BENTA
ZENTRO ZIBIKOA**

**luntxak
bazkariak
afariak**

...

ENKARGUZ

**deitu:
948 30 92 57**



Urte zaharraren eta berriaren artea

Hamaika era daude data jakin batzuk ospatzeko, eta nola ez, urtezahar zein urteberri egunak ospatzeko. Horren isla da gure eskualdea, herri batzuetan ohitura zaharrei eusten diete, eta beste zenbaitetan bestelakoak asmatu. Ikus dezagun nola ospatu dituzten egun berezi hauek gure bizilagunek:

● URTEZAHAR EGUNA

Goiztiarrenak imoztarrak izan ziren. Irurtzongo Iratxo elkarteko lagunekin batera Erga mendira igoera egin zuten. Eta ibilaldiaren ondoren, Iratxo elkartearen otamen bikaina izan zuten elkarteko kideen eskutik.

Goizean ere, eskualdetik kanpora joan zen baten bat Silbestre Deuna lasterketan aritzera, Olatzen odietar eta ultzamarren bat ikusi genuen lasterka. Arratsaldean berriz, Lizasokoa izan zen. Urteak dira antolatzen dela, eta joan zen urtekoa baino eguraldi hobearekin jokatu zuten aurten.

Etagauetz, Etxalekun eta Itsason urtero bezala uraren erritu zaharra berritu dute.

Aurten ere, ur berria banatzen ibili ziren, etxez etxe, urteberrian sartu

bezain agudo, gazteak eta ez hain gazteak.

Gainera, kantuan aritzen dira, aspaldian kantatzen ziren kopia berak abestuz, eta etxekoek trukean zerbait ematen diete. Etxe guztietan abesten ziren 'Hor goien goi hor barren' hasiera dutenak, eta deus ematen ez zuten etxeetan beste batzuk ere kantatzen

ziren, 'kontrarioak' direlakoak.

Gure alderdian, herri hauek dira ohitura honi eutsi diotenak. Bestalde esan behar, orain urte pare bat, Atetz aldean ibili zirela berreskuratzekotan. Nola ote dira kontu haiek?

Eta beste batzuek, noski, parrandarako tarte hartuko zuten ordu txikiak arte.



Eltzaburun ▲



Orokietan aurten berreskuratu dituzte urtetxak ▲

ohitura zahar-berriak

• URTEBERRI EGUNA

2019.aren hasieran, batzuk etxera bueltan ziren bitartean, beste batzuk mendira joateko tartea hartu zuten. Oraingoan ere, imoztarrak eredu, San Bartolomen bildu baitziren Imoztik joandakoak. Anue aldean, berriz, Burdindogira joan ziren.

Urteberri eguneko beste ohitura zahar bat urtetxak biltzearena da. Etxez etxe eskean aritu ziren Suarben, Eltzaburun, Orokietan, Urritzolan, Alkotzen eta beste herriren batean. Berueten eta Lizason, urteberri egunean egin ordez, eguberri bezperan egiten dute.

Urtetxak biltzearen ohitura berreskuratu dute Orokietan. 20 urte ziren urte berri egunean (edourtatxean: 'urte hasiera') urtetxak biltzen ez zituztela, eta aurten haur

eta gazte koadrila batek ohitura berreskuratu du. Etxez etxe aritu ziren eskeanurtarrilaren 1ean.

Urritzolan berriz, 16 etxetan egon ziren, goxoki, fruitu lehor eta beste gozo mordoak jasoz.



Suarben ▲



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

**Etxean eginiko eguneroko menua
Hamaiketakoak - Parking zabala
Pizzak, Hanburgesak.... Oilaskoen eta
paellen eskaerak egiteko aukera
EGUNERO IREKITA**



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote

Denetarik eta prezio hoberenean



**HIRI BATEKO SUPERMERKATU TXIKI
BAT LANDA INGURUNE BATEAN**

Fruta eta Barazkiak - Haragi freskoa
Produktu ekologikoak eta bertakoak

**EGUNERO IREKITA
9,00etatik 20,00etara**

Gulina-Aroztegi errepidea 12.8km-an - Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA



iritzia



Andoni Egaña
Berria egunkarian

Orburuak

2019ko urtarilaren 9an

Jo eta ke ari gara noizbait amestu genuen egitasmoa burutu asmotan; etengabeko borroka eskatzen du helburuetara iritsi ahal izateak; lurrari lotuak bizi nahi dugu, landa eremua bertan behera utzi gabe; arrisku handiak hartu ditugu gure ametsak betetzen joan daitezen; ekimena izatea da gure goiburu nagusia... Balizko esaldi horiekiko atxikimendutik hurbil bizi garela esango nuke. Hurbilegi. Hitzak politikak baitira... Hitzen atzean hatzak daude, ordea. Eta eskuak, eta gerriak, eta oinak...

Hamahiru orduz lanean aritu behar izan duenaren min fisikoa eta inongoztat hartzen ez dutenaren min psikikoa. Hain menpean egoteaz gogaiturik, gainezka egin dute orain. «Nire eskubideak nire zainetako odola dira. Hiltzen banaute ere, ez ditut ahaztuko», abestu zuten arabieraz Azkoiengo Huerta de Peralta enpresako langileek Iruñean. Lan baldintza negargarriak, soldata eskasa, eta protesta egitera ausartzen dena, kalera. Eta batzuk kaleratu dituztelako irten dira besteak.

Langile horietan gehienak migratzaileak dira. Nago arestiko esaldiek belarrietan krakatekorik eragiten ez diguten bitartean ezer gutxi hobetu ahal izango dugula. «Jo eta ke», «borroka», «amestu», «lurra», «ekimena»... izan baitaitezke bertako enpresarien diskurtsoaren parte ere.

Presoekin elkartasun egunak eskualdean



▲ Basaburuko bizilagunak Bilboko manifestaziorako deia egiten

2018ko urte amaiera eta hurrengoaren hasiera euskal preso politikoekiko elkartasunean jorratu dituzte eskualdean. Hatortxu Rock jaialdian laguntzen aritu ziren batzuk, eta urtarilaren 12ko manifestaziorako deialdia eginez aritu ziren beste batzuk, eta eskualdetik autobus oso bat Joan zen Bilboko manifestaziora.

Abenduaren 29an izan zen Hatortxu Rock elkartasun jaialdian boluntario lanak egin zituzten hainbat bizilagunek. Talderik handiena igandean joan zen Atarrabiara, jaialdiaren ondorengo garbiketa lanak egitera. Labasoko Josu Santxo urteroko kolaboratzailea zen, eta omenaldixume bat egiteko probestu zuten bere lagunek.

Bestetik, urtarilaren 12an Bilbon eta Baionan izandako manifestaziora ere joan ziren eskualdeko bizilagunak. Data horren aurretik, motorrak berotzen aritu ziren, eta Hatortxu Rock jaialdiaren asteburu berean, eskualdean barna auto-karabana informatiboa egin zuten, hau da, herriz herri igaro ziren manifestazioaren berri emanez.

Eta urtarilaren 12an Bilbora autobus oso bat abiatu zen eskualdetik. Larraintzartik atera, Jauntsarats eta Latasan geldialdiak egin eta Bilborako bidea hartu zuen. Presoekin elkartasunez antolatutako manifestazioan parte hartu zuten, eta arratsaldea Bilbon eman ondoren etxera itzuli ziren.



▲ Atarrabiara Hatortxu rock jaialdian laguntzera joandako taldea



Amaitu da Gartzarongo pilota goxuko txapelketa

Abenduaren 28an, ostiralarekin, izan zen finala, ia bi hilabete ondoren. Izan ere, azaroaren 1ean hasiz txapelketa, eta 50 partida baino gehiago jokatu dira.

Neska bikote bakarrak eman zuen izena txapelketan, tamalez, eta finala aurretik erakustaldi partida bat jokatu zuten. Ane Mendiburuk eta Leire Oskotzek osatu zuten bikotea gailendu zen, Uharte eta Oberenatik etorritakoak, Antzuolako Galeano ahizpen aurka. Borroka sutsua izan zen, eta haren emaitza, 18-16.

Hirugarren mailan, Ugaitzek eta Mikelek lortu zuten txapela. Iruñea eta Gartzarongo kideek Mikel eta Josu (Jauntsarats eta Beruete) 13 tantotan utzi eta irabazi zituzten.

Bigarren mailako txapelak gurean gelditu behar zuen, Iraizozko eta Beunzako Asierrek eta Enekok Iraizozko eta Auzako Iparragirre eta Xomoren aurka borrokatu baitzuten. Azken hauek irabazi zuten, aurrekoak 13 tantotan ere utzita.

Eta lehenengo mailan Iñaki eta Eneko (Jauntsarats eta Gartzaron) gailendu ziren. Gutxiengatik, 21 tantorekin galdu baitzuten Beruete eta Iruñeko Arangoak eta Santamariak.



Hasi da sagardo denboraldia

‘Dolarea’ Nafarroako Sagardotegien Elkarteak osatzen duten bost sagardotegiek urtarilaren 11an eman zioten hasiera aurtengo denboraldiari.

Lesakako Lindurren bordan izan zen ekitaldia, eta Julian Iantzi telebista aurkezle lesakarra izan zen sagardo berria dastatzen lehena. Lesakako sagardotegiaz gain, Lekarozko Larralde, Lekunberriko Toki Alai, Aldazko Martitxonea eta Beruete Behetxonea sagardotegiek osatzen dute elkarteak.

Baina gainontzeko sagardotegiek ere abian dute denboraldia, gurean Beruete Txaseneko bordak ere hasiera eman dio denboraldiari, eta gerendiango Aitona jatetxeak sagardotegi menua eskainiko du, ohikoa den bezala.



▲ Sagardantza egin zuten lehen sagardoa dastatu aurretik



Menditarrak-BRT

1978an sortu zen Baztan Rugby Taldea. Errugbia Pirinioen hegoaldean ezezaguna zenean, gazte batzuek taldea sortzea erabaki zuten, zailtasunak zailtasun. Hernanin entrenatu eta jokatzeko zituzten partidak, eta urtetik urtera kolokan egoten zen taldea, jokalarikopuru eskasagatik. Hala ere, 40 urte betetzea lortu du BRTk, eta aurrean ospatzen ari dira.

● BRTREN HASTAPENAK

Urte batzuen ondoren, Oronoz-Mugairin zelai bat lortu zuten, San Martin ikastetxean, eta 1991n Lekaroza lekualdatu zen. Jokalarikopuruaren zailtasunen ondorioz, Euskal ligatik Nafarroako ligara pasa zen, eta 1997an taldea desagertu egin zen.

Baina 2001ean taldea berreskuratu zuten 25 lagun inguruk. Baztandarrez gain, gure bailaretako hainbat lagun proiektuan sartu ziren, Ultzama, Odieta, Anue, Basaburua, Atetz eta Lanzkoak, hain zuzen ere.

Lagun talde horrek, errugbia praktikatzeko gain, eskualderako kirol alternatiba bat eskaintzea zuen helburu, errugbia sustatzea. Orduko gazteek ereindako hazia gaur arte mantendu da, herri kirola eta errugbia uztartuz kirol alternatiba eskainiz neska-mutilei.

2012an Baztan Kirol Elkarteko errugbi sekzioa izatetik Menditarrak-BRT Rugby Taldea izatera igaro zen, Baztanen egoitza izanik baina Nafarroa mendialdeko kirolari ugarirekin. Ipar Euskal Herriko taldeekin harreman estua izan dute, errugbi kultura aberatsa baitute bertan, eta eragin positiboa izan du Nafarroako taldean.

“
herri kirol
taldeko ia kirolari
guztiak errugbia
praktikatzen
hasi ziren

Kirol mailari dagokionez, Nafarroako ligan urte luzez aritu ondoren, 2003/2004 denboraldian 1. Nazional mailara igotzea lortu zuen taldeak, eta 2012/2013an Ohorezko B mailarako igoera fasea jokatu zuen, baina aurrekontu eskasagatik utzi behar izan zuen. Hurrengo denboraldian Euskal-nafar-errioxar liga sortu zen, eta horretan dihardu gaur egun.

● ERRUGBIA ULTZAMA ALDEAN

90. hamarkadan eskualdeko kirolariren bat La Unica Rugby taldean aritzen zen jada. Ziaurizko Elkano anaiak eta Urrietzolako Pedro Ezkurra esaterako. Baina 2001ean gorakada nabarmena izan zuen errugbiak inguruko bailaretan, BRT taldearen birfundazioa izan zenean. Urrietzolako Pedro eta Iñaki Ezkurra 'Piku' anaiak eta Ostizko Gabi Jubera Ultzama aldean errugbia sustatzen hasi ziren, bereziki herri kirolean aritzen zen jendearekin, Iñakik eta Gabi herri kirola egiten baitzuten.

Honela, herri kirol taldeko ia kirolari guztiak errugbia praktikatzeko hasi ziren. Aipatutako hiru gain, hauek izan ziren BRT taldean hasi ziren lehenengoak:

Ruben Beuntza (Lantz)	Iban Mutilva (Anotzibar)
Ioseba Oartzun (Erripa)	Josexo Barberena (Iraizotz)
Aitor Mutilva (Anotzibar)	Oskar Villabona (Latasa)
Eduardo Morrondo (Erripa)	Iñaki Barberena (Iraizotz)

2003/2004 denboraldian Larraintzarko ikastetxean herri kirola eta errugbia batera eskaintzen hasi ziren ikastorduetan zein eskolaz kanpoko jarduerara gisa. Gazte askok kirol hau ezagutzea lortu zuten, eta asko BRT (mutilak) zein La Unica (neskak) taldeetara igaro ziren. Hauek dira ikastetxeko jarduerak horretatik pasa diren Ultzama aldeko neska-mutilak.



BRTko lehen taldea ▲

(negritaz egun lehiatzen jarraitzen dutenak):

Mikel Iraizoz (Etsain)	(Olague)
Asier Orbegozo (Eltso)	Xabier Redin (Arraitz)
Iñaki Iraizoz (Etsain)	Mikel Eugi (Beuntza)
Ander San Martin (Burutain)	Maddi Braco (Lizaso)
Ruben Ozkariz (Olague)	Javier Oskoz (Orkin)
Ander Uria (Iraizotz)	Itziar Braco (Lizaso)
Oier Villanueva (Auza)	Ana Mariñelarena (Aritzu)
Jose Angel Villanueva (Egozkue)	Maialen Marturtet (Lizaso)
Julen Anzizu (Lizaso)	Noelia Telletxea (Olague)
Mattin Zubillaga (Olague)	Lorea Basterretxea (Iraizotz)
Jesus Erice (Gendulain)	Maika Iraizoz (Eltzaburu)
Jon Biurrarena (Itsaso)	Eneko Freire (Olague)
Ander Esain (Lantz)	Irene Larraioz (Larraitzar)
Gorka Antolin (Iraizotz)	Eduardo Galain (Iraizotz)
Iñigo Etxepare (Zenotz)	Javier Rodriguez (Olague)
Miguel Hualde (Eltso)	Asier Ezkurra (Urritzola-Galain)
Asier Etxeberz	



▲ Julen Linzoain, Julen Anzizu, Asier Ezkurra, Iñaki Iraizoz eta Iñaki Ezkurra 'Piku'



▲ Partida bateko argazkia

Gaur egun ostiraletan 16:00etan egiten dute errugbia eta herri kirola. La Unika Rugby Taldeko Maika Iraizotz eltzaburuarra da jarduera gidatzen duena, eta gaztetxoak Menditarrak-BRT taldearekin lehiatzen dira. Hauek dira:

Garoa Hernandez (Larraitzar)	Jon Jubera (Lantz)
Alain Illescas (Lizaso)	Peio Ezkurra (Urritzola-Galain)
Aingeru Perez (Arraitz-Orkin)	Maidar Sarrias (Ziaurritz)
Patxi Landiribar (Urritzola-Galain)	Ainhua Ezkurra (Urritzola-Galain)
Xabier Jubera (Lantz)	Irati Sarrias (Ziaurritz)
Mattin Oartzun (Iraizotz)	Amaia Mariñelarena (Lantz)

RUGBY GAUPASA

Taldeak bizirauteko ezinbesteko zita izan da Larraitzarko gaupasa. 2004an BRTk 1. maila nazionalera igotzea lortu zuenean, aurrekontu handiagoa eta jokalarri gehiago behar zituen, eta urte hartan Larraitzarko pilotalekuan, dirua lortu eta errugbia jendearengana gerturatzeko.

Aurten hamaseigarren gaupasa izanen da, eta jokalarriak prestatzen hasi dira jada. Nobedadeak izanen ditugu 40. urteurren honetan.

● EMAKUMEZKOEN KOPURU HANDIA

Errugbia kirol maskulinoa denaren ustea oso zabaldua egon da, baina Ultzama aldean pertzepzio hori asko aldatu zen aspaldi. Izan ere, errugbian hasi ziren emakumeei esker, gaur asko dira kirol honetan aritzen direnak. Herri kirolean aritzen ziren emakumeak izan ziren errugbian hasi zirenak: Amaia Berasain (Auza), Marta Larraioz (Larraitzar), Maidar Villanueva (Auza), Irene Larraioz (Larraitzar) eta Ana Ruiz (Etulain).

Nafarroako Unibertsitate Publikoan hasi ziren entrenatzen, baina inguru honetako jokalarri asko zeudenez, Baztanen eta Iruñean entrenatzen ziren aldizka. Gerora La Unika Rugby Taldera pasaziren. Askok dira eskualdean errugbian aritu diren emakumeak (negritaz egun lehiatzen jarraitzen dutenak):

Amaia Berasain (Auza)	Itziar Braco (Lizaso)
Marta Larraioz (Larraitzar)	Maialen Marturtet (Lizaso)
Ana Ruiz (Etulain)	Lorea Basterretxea (Iraizotz)
Maidar Villanueva (Auza)	Leire Etxeberria (Eltzaburu)
Irene Larraioz (Larraitzar)	Iraida Mariñelarena (Etulain)
Rakel Goienetxe (Urritzola-Galain)	Garbiñe Mariñelarena (Etulain)
Saioa Morondo (Erripa)	Ekhine Armendia (Etulain)
Maite Irigoien (Etxaleku)	Maite Ibarra (Alkotz)
Leire Garbisu (Muskitz)	Jone Alsua (Jauntsarats)
Ana Mariñelarena (Aritzu)	June Mikeo (Beruete)
Noelia Telletxea (Olague)	Maddi Izko (Itsaso)
Maika Iraizoz (Eltzaburu)	
Maddi Braco (Lizaso)	







Iraizotz eta bere ostatua

Azaroan hil zen Benita Zarrantz Aginaga, Erripako *Karakoetxean*, 87 urtetan. Ezkongabea zen eta bere bizi guzian bertan bizitutakoa. Memoria gaitzeko emakumea, etxeko eta herriko kontuak ederki gorde zituen.

Eta emakume hau dugu, **Aita Polikarpo Iraizoz**, kaputxino famatuaren azken ilobetako bat. Alderdi honetako azkena.

Eta abendu honetan, berriz, Iraizozko herriak ireki du ostatu berritua. Beheitia eta lehen pisua zaharberritu ditu. Eta herriak, aukera aprobeztatzuz, Iraizozko seme maiteenaren oihartzuna ekarri nahi izan du, Agustin Zarrantz Bermejo zeritzan jakitsuarena edo **Aita Polikarpo Iraizozkoa** bezala ezagunago dugunarena, bere bertso bat jarri baitu mostradorearen aldamenean. Hona zer dioen bertso horrek

Txoriak ere kantatzen du baratzeko esian:

«Ori'ko txoria laket da beti Ori-mendian»;

uda ta negu, gau ta egun an bizi da lorian.

Nik ere bizi ta il nai dut sortu nintzen tokian.

Eta hona zer dioten “Oriko txoria” deitu bertso guziek, Iraizotz bere sorterriari eskainiak:

*Zeruan eder ilargia
izarren aitzindari;
Aren ondoan artizarra
goizean da nabari.
Aiek zerutik beira daude
nere sorterriari:
ni berriz basabazter ontan
nigarretan naiz ari.*


*Txoriak ere kantatzen du
baratzeko esian:
«Ori'ko txoria laket da
beti Ori-mendian»;
uda ta negu, gau ta egun
an bizi da lorian.
Nik ere bizi ta il nai dut
sortu nintzen tokian.*

*Zoritxarrean lekutu naiz
jaio nintzen txokotik.
Zoriona bilatu naiez,
atsegin ondotik;
aunitz erritan ibili ta
leiatu naiz gogotik;
baina biotzak eztu onik,
nion eztu gozorik*

*Oi erri maitea, zu zaitut
orai nere gogoan;
zure izen xoragarria
maiz dadukat agoan;
gauzez ere zutaz ari naiz
beti amets gozoan:
Jaunak berriz jarriko al nau
laster zure altzoan!*



▲ Benita Zarrantz, pantaloiekin dagoena da, Odietako bere adiskideekin. Ezkerretik eskuinera: Ana Maria Bizkai (Ziaurizko Apezenea) Isabel Antxaño (Ziaurizko Eskolazarra) Benita Zarrantz (Erripako Karakoetxea) eta Mikela Goldaratz (Gendulaingo Martxonea)



▲ Aita Polikarpo Iraizozkoa (Agustin Zarrantz)

Eta Polikarpoz hara zer dioen Jesus Goldaratz Lizaso, Iraizozko **Oliteneko** apezak idatzi zuen biografian:

Herrimina, Iraizozmina, bada, bizipen iraunkorra zen gure gizonarengan.

Gaur Benita Zarrantz ekarri dugu hona, Martin Zarrantz Bermejoren alaba, eta, beraz, Polikarporen iloba. Alderdi honetako azken iloba.

Eta nola diren gauzak, Polikarporen ama, Prisca Bermejo Irisarri, alargundu eta Iraizozko **Apezeneko** nagusia zen Esteban Oiartzun Eritze alargunarekin ezkondu zen. Eta nor zen Esteban Oiartzun hau? Ba, Erripako **Karakoetxetik** 1873an etorria **Apezenera** Martina Iraizotz Baraibarrekin ezkontzeko.

Urteetara Erripako **Karakoetxera** ezkonduko zen Polikarporen anaia, Martin, eta Martin hau dugu Benita Zarrantz Aginagaren aita.



Txurdan

Hiztegia

Orhi, Irati oihan handian dagoen mendia da, Zuberoako mugan. Oso entzuna, fama handikoa eta herri literaturan aunitz aipatua. Eta Orhiko txoria zer esanik ez. Kantu bat bada, izen bera duena eta zuetako gehienok ezaguna duzuen. Bakoitzak bere lekua maite duela adierazteko azalpena. Hitz batzuen azalpena eginen dugu, ezezagunak direlako hemen. Batzuk Baztan eta Iparraldekoak dira.

Oiartzun: eco

Bizipen: vivencia

Iraunkorra: constante, persistente.

Laket: zerbait atsegin izan, gustuko izan.

Loria: poz handia.

Artizarra: Venus izarra

Lekutu: aldendu

Leiatu: lehiatu: borrokatu, lan egin.

Nion: inon

JESUS CUELI MARIÑELARENA, MISIOLARIA

Azaroko zenbakian, 178.an hain zuzen, Jesus Cueli misiolariak idatzi genuen, nola biblia guyeratera itzuli zuen eta beste zenbait kontuz.

Eta huts larri bat egin genuen, bere bigarren deitura oker jarri baikenuen: Oiartzun jarri genion, Mariñelarena beharrean.

Jesusek, ama, Balbina Mariñelarena Nuin zuen, Olagueko Kontadorenekoa. Eta Olagueko etxe honetara, Mariñelarena deitura, berriz, Etulaingo Juanpaitzenetik etorria omen. Hala esan digu Olagueko Pedro Senosiainek.

Eta barka bezate irakurleek eta batez ere Jesusen ahaideek.

OHARRA

Polikarpoz gehiago jakin nahi duenak, hor dituz Interneten datu franko, Jesus Goldaratzek idatzi biografia motz hori barne. Beste biografia luzeago bat eskaka ari dena.



Lizasoko estankoa

Lizason estankoa noiztik den ez dakigu, udaletxean ia dokumentu zaharrik ez baitago, azken karlista gerran edo suntsitua izaten baita Ibarreko artxiboa.

Paper zaharrak ikusiz, estanko-jabea Igoa delako bat topatu dugu.

Igoatarrak aspaldi samarretik ditugu Lizason. 1820ko hamarkadan baditugu bertan sortutakoak. Eta lehenagotik ere bai, beharbada.

1826. urtean sortutakoa dugu Jose Fermin Igoa Nuin. Eta ezkondu, 1859an, Lizaso bertakoa zen Micaela Oskotz Larunberekin.

Ezkontzerako Notarioaren aitzinean egindako eskrituran agertzen dira Jose Fermin nekazariaren ondasunak: idi pare, 2 behi eta 2 behor eta zerrama bost txerrikumerekin. Azienda polita, kontutan hartzen badugu garai hartan, batez ere lur lantzen aritzen zirela, laboreak bilduz.

Ez zen etxejabea, baina ordurako bazituen bi alor, bat Larraintzarko **Perustenekoei** erositako eta bertzea Lizasoko **Arotzenekoei**. Beraz, nahiz maistarra izan, ongi zegoen familia zen. Eta andreak ere, dote polita ekarri zuen ezkontzara, 50 ontzako urre.

Familialuzea izan zuten, zortzi umetatik gora. Jose Fermin 1882an hil zen eta sei urte berenduago bere andrea, 56 eta 48 urtetan, hurrenez hurren. Zortzi umezurtz gelditu ziren.

Zein etxetan bizitu ziren ere ez dakigu. **Kurtalenean?** Baliteke. Dena dela, ondoren behintzat **Kuartelenean** ikusiko dugu familia hau.

● LEHENBIZIKO BELAUNALDIA

1886. urtean, Micaela alargundua zegoenean, estankoa zutela ageri zaigu paperetan. Orduan hartu ote zuen edo lehenagotik ote zuten?

1888. urtean hil zen Micaela paperik egin gabe, oinordekorik izendatu gabe. Eta ondasunak banatu behar izandu zituzten juzgaduz zortzi senideren artean. Bakoitzak 2.000 pzt hartu zuen dotez. Dote ederra zen.

Estankoan zutenaren balioa: 209,78 pzt.

● BIGARREN BELAUNALDIA

Umeetatik zaharrena Brigida zen eta hurrengo Francisco, Ameriketara zena. Eta, horrela, hirugarrenak, Pedrok, 22 urteko mutilak jaso zuen Estankoa, baina oso denbora laburrez, Gregoria ikusiko baitugu laster estankoaren kargu.

Gregoria 23 urtetan ezkondu zen, Ilarregiko Joaneke Francisco Ezkurra Nuinekin, 30 urte zituen.

Paperak alde batera utzi, eta hona Estankoko semea den Juantxo Ezkurra erran diguna:

Franciscori, gure aitaxiri, etxean gelditzeko agindu gurasoek, baina honek hartu nahi ez, zor handixkoa zuela etxeak eta. Orduan Auzako Pollonean aritu omen zen diligentzia gidari, egunero Ultzama eta Iruñea arteko joan etorria eginez. Eta lan horretan aukera polita izan zuen merkatari bezala, gauzak jendearendako ekarri, edo Iruñean erosi eta hemen salduz.

Francisco dirutu eta **Ezkerren borda** erosi zuen Larraintzarren.



Aurrezki kutxa eta Estankoa ▲

● ESTANKOAREN HANDITZEA

Francisco, ezkondu zenean, bere merkatarari senari segituz, estankoari denda gehitu zion. **Kuartelenean** jarri zuen denda eta poliki-poliki Ultzamaldeko dendarik handiena izan zen.

Nonahitik zetorkion jendea, Ultzamatik, Odietatik eta Ateztik.

● ETXE BERRIA

Umeak, bat bertzearen segidan zetozkien. Eta Estankoa eta Denda ez zihoazkien batere gaizki. Tokia ere behar denda eta familia hazteko, eta etxe bat egitea erabaki zuten. Eta 1911. urtean egin zuten.

Hala digu Juantxo Ezkurak, Lizasoko Nafarroako Aurrezki Kutxan jubilatatu artio zuzendari izan zenak:

Bai, Lekarozko Arkitektoa zen Plazak egin zituen planoak eta denetara arkitektoa eta obra, 11.070 pzt. kosta zen; plano eta faktura guziak oraindik etxean ditugu.

Familiaz galdetuz, hala dio:

Gure aita eta senideak hamaika izan ziren. Erranen dizkizut banan-bana: Ignacio, Pedro, Maria, Felisa, Modesto, Emilia, Aurea, Antolin, Jose, Maria Teresa eta Maria Soledad.



▲ Juantxo Ezkurra, Estankoko semea, Lizason Nafarroako Kutxako zuzendari hainbat urtez izandakoa, jubilatatu artio.

● HIRUGARREN BELAUNALDIA

Senide aunitz. Hamaika. Hiru senide fraide kaputxino izan ziren, bi Erroman hil ziren oso gazterik. Eta bi neskak moja joan ziren eta hauek ere gazterik hil ziren.

Antolin gelditu zen etxerako eta nekazalgoarekin segitu zuen, batez ere esne behiekin. Eta Estankoa eta dendarekin ere bai.

Iruindarra izan zuen andrea, Pilar Carrillo Arozena. Ea nola ezagutu zuten elkar eta hara zer dion semea den Juantxok:

Ba, Eltzaburuko Martiñeneko terrazan, dantzan. Martiñeneko alabak Iruñean estudioan gure amarekin batera eta Eltzaburuko pestetara etorria izaki eta bertan ezagutu gure aitak.

Antolinek, nekazari izateaz gain, hartzen zuen denbora bertze zereginetarako ere, Ibarreko jueza izan zen urte aunitzez, eta gero udaleko diruzaina. Honetaz, Juantxok dioena:

Hainbertze urtetan, depositaria eraman eta, beti-beti, kontuak egiterakoan zuzen zuzen atera omen zitzaizkion. Ez peza bat gehiago, ez peza bat gutxiago.

Harrigarria egiten zaigu kontu hau, baina Antolin ezagutu genuenok badakigu bere arreta, ardura eta gauzak erabat zuzendu artio hartzen zuen denbora.



▲ Patxi Ezkurra, Estankoko jabea.

● NAFARROAKO AURREZKI KUTXA ULTZAMAN.

Nafarroako Aurrezki Kutxak sukurtsala ireki nahi Ultzaman eta bakarren batzuk Antolinen izena eman eta etorri omen zitzaizkion ea Aurrezki Kutxa eramanen zuen. Eta honek baietz erran eta baita eraikuntza egiteko lurra saldu ere. Hori dena 1962. urtean izan zen.

Eta horrela izan zen Antolin Ezkurra Igoa Aurrezki Kutxako zuzendari.

Jakina, azienda utzi behar izan zuen, eta estankoa, berriz, bere andreari eta semeari pasa.

Lehenik denbora labur batez Juantxo izan zen Estankoko arduraduna eta gero ama, Pilar, jubilatatu artio.

● LAUGARREN BELAUNALDIA

Pilar jubilatatu ondoren, Patxik, bere semeak, hartu zuen ardura eta oraindik hor segitzen du Estankoarekin nahiz orain langile bat duen eta bera Bel-en aritzen den lanean. Honek, Estankoko etxeak ehun urte bete berritan, erabat zaharberritu du.

Hau dugu laburbildurik Lizasoko Estankoaren historia. Luzatzerik eta zehazterik bagenuen, baina tokirik ez. Eskera aunitz, Juantxo.



Txurdan

Hiztegia

Oinordekoa: heredero

Arreta: cuidado

Ardura: responsabilidad

Aurreztu: ahorrar

Aurrezkia: ahorro

Eraikuntza: edificio



Iraineekin segituz (II)

Kakalardoa

Irainak eta biraoak! Biraorik ez omen da izaten euskaraz, ia-ia irainik ere ez.

Gure andrearen izebak, neskazahartu eta etxean izaten zutenak, hala esaten omen zien bere ilobei: no hay que usar palabras malsonantes. Cuando querais decir algo, decir “zerria”. En vasco no hay palabrotas, la mayor es “zerria”.

Zein oker zebilen andre gaixoa! Euskaraz beste hizkuntzetan bezainbat, jakina, deus jakin gabe ere zentzuak berak erakusten digu hala behar duela izan. Zeinen oker ibili diren zenbait autore euskararen balizko “garbitasun” honekin!

Nahiz Berako kasta izan, emakume hark ere ez zekien ba askorik euskaraz. Nola

jakinen zuen ba euskaraz irain bakarria zekienean!

laz idatzi nuen artikulutxo bat sail honetarako eta gehienbat pizti, etxeko animalia eta intsektuen izenekin bakarrik ateratzen zitzaidan irain purrusta bat. Purrusta bat? edo ehun esatea ez al da egiago? Bakar batzuk jarri nituen eta, adibidez, kakalardo ez nuen jarri, irain bizi-bizia dena, ezaguna, gogorra eta mingarria. Esan iezaiozu edozeini kakalardo! Hortzetako bat ematen ez badizu, aurrean duzuna aingerua da, gizakia baino gehiago.

“Zerria” omen handiena! Tokitan zegoen Berako aingeru zerutiar hura!

Denetarako, edozein egoeratarako...

emakumeendako edo gizonendako, etxean edo karrikan esatekoak... Instituzio ponposoetan esateko gisakoak edo ostatuetako zokoetan botatzeko bezain lakarrak. Denetarako badu euskarak.

Nola jakinen duzu euskaraz, ehunka irain izaki gure hizkuntzak eta irain bat esaterakoan, botatzerakoan, norbaiti egozterakoan, erdarara jo behar baldin baduzu? Ikasi beharko zenuke zertxobait hizkuntza hori gaitzeko, zorrozteko, aberasteko.

Irain eta birao, noiz eta nola erabili behar diren ere ikasi behar da. Non eta norekin ere bai, jakin behar da oreka eta errespetua gordetzen, edukazioa izaten. Ez zaigula inork aurpegiatu Damaso Intzak Imotzen bildu zuen honako esaera hau: **zerriak loiera, lizunak lizunkerira** (Eraso)

Edo Damasok berak jasotako hau ere ez diezagutela egotzi: **Gaizki esaten du(e)nak, esan ainbat zor**. Hobe hartzekodunak atzetik ez ibiltzea! Ez diezaioygula inori fama txarra jarri gure zabarkeriarengatik.

Hitzekin poliki ibiliz, jakinduriaz gure burmuina betez eta ardo frexkotik egunero edanez, egin dezagun aurrera. Eta horretarako irainak ongi ibiltzen jakin behar!



Txurdan

Biraoak Nafarroan bilduak

PATXI SALABERRI ZARATIEGI
JUAN JOSE ZUBIRI LUJANBIO

Hiztegia

Balizkoa: supuesto.

Lakarra: basto

Oreka: equilibrio

Hartzekoduna: acreedor

Burmuina: seso(s)



Egozkue

Landa feminismoari buruzko topaketa, Egozkuen

Landa Hirian eta landa eremuan, Emakumeak elkarrekin Ereiten lelopean, Feminismo baserritar eta herrikoari buruzko topaketa internazionalak izan ziren Iruñean. Ekimen horren barne, Loperena Gaztandegia bisitatu zuten, Egozkuen.

Topaketetan 60 emakume inguruk parte hartu zuen, erdia Iruñerrikoa eta beste erdia Nafarroako beste lekuetatik etorritakoak. Horietatik erdiak bisitatu zuen Loperena Gaztandegia.

Izan ere, topaketen helburua, besteak beste, landa eremuko eta herrietan jorratzen den feminismoari buruz hausnartzea zen, eta horren harira, ekoizpen esperientzia bat ezagutzea. Horretarako, Nafarroako emakume ekoizleen egiteko modura hurbiltzeko, Marta Pérez Loperenaren gaztandegia bisitatu zuten. Loperenak nola egiten duen lan kontatu zien, garaiz gasna egiten hasiko direla erditze garaian baitaude, eta zer oztopo eta zailtasunak dituen bere lanean. Baita, ordea, bere lanak ematen dion harrotasuna eta poztasuna.

Pérez Loperenak kontatu digun bezala, “gure egunerokoa kontatu genien, nola egiten dugun lan, eta gure artaldea erakutsi genien. Etorritako guztiak interes handia zuten eta oso jende jatorra zen. Egia esan, oso esperientzia polita izandu zen”. Gero, hamaiketako hartu zuten herriko elkartearen eta topaketei amaiera emateko errito txiki bat egin zuten, “Brasildik etorritako emakume batek haziak ekarri zituen eta berak egin zuen errito hori. Eskutik helduta emakume bakoitzak hazi batzuk hartzen genituen eta larunbatean emakume bakoitzak idatzi zituen konpromisoak irakurri genituen. Horrela eman genion bukaera topaketari”.

Hain zuzen ere, hitzaldiak eta bizipen mahaia osatu zuten Iruñean, larunbatean. “Landa eremuko eta hirietako emakumeen arteko ezagutzarako eta eztabaidarako gune bat sortu zen. Galiziatik, Andaluziatik eta Brasildik etorritako emakume baserritarrak eta hirikoak parte hartu zuten, baita hemengoak ere. Arratsaldean eztabaidatzeko lan taldeak egin ziren eta parte hartu zuten emakume guztiek konpromiso pertsonal bat sinatu zuten”.

Brasildik, **Asociación de mujeres campesinas elkarateak** eman zuen hitzaldia, feminismoaren borroka eta nekazal borroka uztartzeari buruz hitz egin zuten. Brasilen nekazariak baztertuak eta gutxietsiak direla azaldu zuten, eta horren aurrean, beraiek bere izaera aldarrikatzen dutela.

Zaintza eta ekonomia feministaren inguruan izan zen bestea. Mahai ingurua, besteak beste, Nafarroako emakume ekoizle batek, Mundu martxako ordezkari batek eta Galiziako sindikalista batek, eta Andaluziako beste batek, osatu zuten.



Marta Loperenak bere artaldea erakutsi zien, joan ziren emakumeak interes handia zuten.



Nafarroako emakume ekoizleen egiteko modura hurbiltzeko, Marta Pérez Loperenaren gaztandegia bisitatu zuten.

Urritzola-Galaingo elkartean

Urritzola-Galaingo 'Herrikutxa' elkartean bi ekitaldi izan dituzte abenduan. Bazkideen eguna ospatu zuten abenduaren 8an, eta eguberri saskiaren zozketa abenduaren 23an.

● "HERRIKUTXA"-N BAZKIDEEN EGUNA.

Ohikoa den bezala, "Herrikutxa" elkarteko bazkideen eguna abenduaren 8an ospatu zen.

Eguna 13:00etan hildako bazkideen omenez egindako mezarekin hasi zen. Ondoren bermutahartu eta elkartean egin zen bazkariarekin jarraitu zuen. Ia herri guztiak parte hartu zuen. Lehenik, agertu ziren 17 umeentzat haur menua eskaini zen eta ondoren izena eman zuten 47 helduentzat bazkari bapoa.

Bazkalondoa eta arratsaldea "Edu" akordeoilariak girotu zituen, eta dantzan eta kantuan une goxoak pasatu zituzten.

● "HERRIKUTXA" ELKARTEKO EGUBERRI SASKIEN ZOZKETA

Abenduaren 23 igandean, eguerdiko 12etan urteroko "herrikutxa" elkarteko eguberrisaskien zozketa egin zen. Ohikoa den bezala, agertu zirenetzat txistorra eta gaztaina erreak egon ziren. Aurtengo saridunak Maria Lopez eta Jaione Eugi izan ziren. Zorionak.

● URTEBERRI EGUNEAN, URTETXAK BILTZEN

Urtero bezala, urteko lehen goizean gaztetxoak herriko etxe guztietara hurbildu ziren abestuz eta urtetxak bilduz. Denetara 16 etxetan egon ziren, goxoki, fruitu lehor eta beste gozo mordoajazoz.



Zozketaren eguneko talde argazkia ▲



urtetxak biltzen ▲



Hurrengo geltokia, Igoa

Ilbilbide gorabeheratsua izan ondoren, eta tartean hutsik egon ondoren, Igoako Ostatua martxan jarri du berriro Lledo Barrera familiak. Dagoeneko 6 hilabete daramate, eta bere hitzetan, oso gustura. Abenduan, Basaburuko pintxo lehiaketa irabazi zuten, lan ona egiten duten seinale. Yasna Barrera da sukaldaria, “oso sukaldari ona da, oso” Leontziok, Igoako Pulunpe banatzaileak, esaten digunez. Berarekin batean Javier Lledok egiten du lan, bere senarrak, eta Luna, Carlota eta Cayetano seme-alabekin bizi dira ostatuan. Duela 18 urte iritsi ziren Txiletik Euskal Herrira, Getariara. Donostian, Zarautzen, Gasteizen eta Beran ere lan egin dute, beti ostalaritzan. Baita Tarragonan eta Huescan ere, eta tartean, Txilen jatetxe euskaldun bat zabaldu dute 3 urtez. Baina lapurreta ugari jasan ondoren, baita etxean ere, Euskal Herrira itzultzea erabaki zuten, haien lekua hau dela sinetsita. Toki batetik bestera ibili ondoren, Igoa izan da azkeneko geltokia, eta, agian, behin betikoa.

●BATETIK BESTERA IBILI ONDOREN, IGOAN LUZE GELDITZEKO ASMOZ ETORRI AL ZARETE?

Yasna: Nik denbora luzean bizi nahi dut hemen, bai, eta umeak ere oso pozik daude. Lunak, nagusiak, Larraintzarko eskolan ikasten du, eta bi txikiek Ohianzabalen, Jauntsaratsen. Gainera, hemen bizitzea eta lan egitea oso eroso da. Hemen bizi kalitatea aurkitu dugu, eta, aldi berean, 25 minutuan lruñean zara, zerbait behar izanez gero. Txilera itzuli ginenean, ni ez nintzen ohitzen, denbora gehiago behar genuen jatetxeari bultzada emateko, eta nik ez nuen gogorik han bizitzeko. Txikia han jaio zen, baina bi urte bete zituenerako hemen ginen berriro. Hirurak oso ongi egokitu dira hona, euskaraz hitz egiten dute, eta haiek itzuliko didate elkarriketa!

●ZERGATIK ERABAKI ZENUTEN IGOARA ETORTZEA?

Beratik etorri gara, han izan baikara lanean, eta gustura ginen. Baina gure lokal propioa nahi genuen, Donostian bezala. Interneten bilatu genuen, eta Javierrek Igoako Ostatua hartzeko eskaintza ikusi zuen. Niri ezer esan gabe hona deitu zuen galdetzeko. Alkatearekin hitz egin zuen, eta hemengo bizimoduari buruz ere hitz egin zuten, eskolari buruz, eta abar. Alkateak umeak genituela eta inguruko ikastetxeei buruz galdetu genuela ikusita, nik uste dut interesa piztu zitzaiola, eta lekua ezagutzea etortzea eskaini zigun. Eta oso ederra iruditu zitzaigun dena, nolabaiteko antza du nire jaioterriarekin, Temuco. Andeetan kokatzen den herri txiki batean bizi nintzen, eta hau oso antzekoa da. Nire haurtzaroa oso polita izan zen, hara eta hona mendian, eta hori oso ona

da umeendako. Orduan, umeak ekarri genituen, eta hau izugarri gustatu zitzaenez, etortzea erabaki genuen. Oso lasaia da, gainera.

●BAINA LAN HANDIA DUZUE, EZTA?

Batez ere asteburuan jende asko izaten dugu, bai, eta oso pozik gaude herriak oso ongi erantzun duelako. Izugarri atsegin dut herrian sortzen den giroa. Orain arte, entzun dudanez, ez dute zortehandirik izan ostatu aeraman duen jendearekin. Nik uste egonkortasun pittin bat nahi zutela. Eta gu oso pozik, nahiz eta iritsi eta oso arin joan den dena. Hasieratik, menua egin behar nuela argi nuen; beraz, iritsi eta kroketak, saltsak, eta egunero behar nituen gauza guztiak egiten hasi nintzen, eta bi egunean dena antolatu eta zabaldu genuen.

●HEMENGU JAKIAK PRESTATZEN DITUZU?

Bai, nik egiten dudana guztia hemengoa da. Txileko jakirik ez dut egiten, ez, agian batzuetan zerbait sartu dezaket, baina gehienetan ez. Hemen jendea ez baitago ohituta espeziak erabiltzera, eta nik ez ditut erabiltzen, ezta janari minik ere. Euskal Herrira iritsi nintzenetik hemengo sukaldaritza ikasi nuen. 18 urte dira dagoeneko. Orduan, Zarauzko jatetxe batean hasi nintzen lanean sukaldean, eta hori izan zen nire eskola nagusia. Gero, ikasten jarraitu nuen lan egiten nuen leku guztietan, eta behin Martin Berasategirekin ere hilabete batzuk ikasten ibili nintzen, ez luze, garai hartan taberna baikeneukan Donostian.



▲ Yasna Barrera, pintxo lehiaketako sariarekin, Marimar eta Nievesek emanda. Ondoan, ezkerrean, bere senarra Javier. Behean, Luna, bere anaia Cayetano helduta; eta Carlota.



231 kirolari Silbestre Deuna lasterketan

Urteroko ohiturari eutsiz, Ultzamako 26. Silbestre Deuna lasterketa jokatu zen abenduaren 31an Lizason. Giro hotza, baina lehorra, joan zen urteko euri-tearekin konparatuz, ezin ederragoa!

Osotara 231 izan ziren lasterketetan parte hartu zutenak. Pluralean diogu, ez baitzen bakarra izan. Lehenbizi haurren lasterketak izan ziren, adinak gora

egin ahala, distantziak ere gora egiten zuen, Lizaso herrian barna bueltak emanez.

Lehenengo hiru sailkatuak jarriko ditugu hemen, espazio kontuagatik, baina horrekin ez diogu lehiari garrantzirik eman nahi, ez baita garrantzitsuena, are gehiago urteko azken eguneko lasterketa honetan:

Helduen mailan bi lasterketa izan ziren, 4 kilometrokoa bat eta 8koa bestea, 4ko ibilbideari bi itzuli emanez. Parte-hartze polita izan zen hemen ere, eta esan beharra dago, antolakuntzari ezi-nezkoa egin zitzaiola dortsal batzuk apuntatzea, zaila baitzen ikusten.

Hemen dituzue bi lasterketetako aurrenen hiru sailkatuak:

6-8 urte	8-9 urte	10-11 urte	12-15 urte
1. Unai Uhiza	1. Aimar Etxeberria	1. Ainhoa Latasa	1. Andoni Sarasibar
2. Uxue Iturralde	2. Eneko Rekalde	2. Diego Castillo	2. Andoni Aizkorbe
3. Jon Jubera	3. Xabier Jubera	3. Ibai Latasa	3. Amaia Mariñelarena

4km emakumezkoak	4km gizonezkoak
1. Maria Iraizoz	1. Francisco Colon
2. Ainhoa Iraizoz	2. Beñat Astrain
3. Lucia Oskoz	3. Hodei Urriza

8km emakumezkoak	8km gizonezkoak
1. Nahia Etxetxikia	1. Unai Espinal
2. Ainhoa Ziriza	2. Ibai Larregi
3. Ainhoa Gelbenzu	3. Ricardo Ariztegi



▲ 4 kilometroko lasterketako podiuma



8 kilometroko lasterketako podiuma ▲



Etxera bidean

Pero...¿por qué hablas así, mi chico?

Horrela du hasten Xamarrek, Garraldako semeak, bere azken liburua, *Etxera bidean*.

Amona xaharrarekin euskaraz ari nahi, eta aukerarik ematen ez honek. *Falta de riego* du amatxik. Hori bakarrik? Ez, atzendua omen.

Biloba gaztea, bere aurrekoen historia, ebatsi dioten bizia, berreskuratua nahi ari da. Eta horretarako oraindik bizi arrastorik topa ote dezaken ate guziak joko ditu, hasi amatxi xaharrarengandik eta herriko beste hainbat jendeenganaino. Herriko ez kildorretik ikus dezakeen inguru guzia ezagutu nahi luke eta Pirinioetatik bestaldera

begiratuko du. Edo zer esan, Atlantikoa igaroz Ameriketara egingen duen txangoaz?

Poliki, poliki, batzuetan harria zulatzea bezain neketsua den barne eta kanpo ezagutza erdiesten joanen da. Ebatsia berreskuratuko du: ezagutza eta batez ere, bihotza.

Eta azkenean, amatxiren bihotzarekin bat egingen du eta afaldu eta lotara joanen dira amatxi-bilobak, bizitzako nekeak uxatzera. Falta de riego guzi-guziak aienatzera.



Idazle ahetzak, beste behin, ohiturik gauzkan bezala, liburu eder bat oparitu digu, etxeko isiltasunean irakurtzeko liburu baikorra. Liburu iradokitzailea, xamurra...gure baitakoa. Hori, gure baitakoa, bihotza hunkituko dizuna.

Aietz-Maietz

gorputzes eta arimas

azkar izan baietz.

Etixerako bidea hartu beharko genuke, etxetik urruti ibiltzen garen honetan, bai fisikoki eta bai espiritualki. Etixerako bidea hartu beharko genuke, gorputza eta are errazago dena, izpiritua galdu baino lehen. Xamarren liburu maitagarria eta iradokitzailea izanen dugu lagun, arimaz azkartze lanetan. Etixerako bidean etxekoekin.

Eta azkenik esan, erraz irakurtzen den liburua dela, baina ez hasi eta buka, dastatuz irakurri beharrekoa baizik, poliki-poliki. Zoragarria!



P. A.

Hitzak:

Biloba: nieto.

Berreskuratua: galdutakoa berriz eskuratu.

Ezagutza: conocimiento.

Erdietsi (Erditxi): alcanzar, lortu

Aienatu: desagerrarazi, uxatu

Baikorra: optimista

Iradokitzaile: iradokitzen duena, sugerente.

Ahetza (Aietza): Aezkoako jendea.



Doneztebeko desafioa

Xabier Urrutia eta Alex Fernandez txapeldun Doneztebeko desafioan

Ezkurra pilotalekua leporaino bete zen nafarren eta bizkaitarren arteko herri kirol desafioa ikusteko. Nafarrek eraman zituzten jokoan zeuden 3.000 euroak, lan ikusgarria eginez.

Nafarrek eta bizkaitarrek adosturiko desafio honek badu zerikusia gure eskualdearekin. Izan ere, Xabier Urrutia arraioztarra eta Alex Fernandez iruindarra, besteak beste Aroztegin entrenatzen aritu ziren.

Ordu txikitan, lanetik aterata, gauez aritu ziren Kañamarestarren etxean arpanean entrenatzen. Kañamarestarrak eta Oier Aizkorbe berriozartarra (gurasoak Aroztegikoak) izan zituzten laguntzaile, baita Mikel Eugi beuntzarra ere. Beraz, ateztarrek zeregin garrantzitsua izan zuten apustu handi honi begira.

Lehiari dagokionez, larunbatez, arratsaldeko 18:00etan puntu-puntu hasi zituzten lanak. Alex Fernandez eta Xabier Urrutia nafarrak, Oskar Perez eta Ousmane Drame bizkaitarren aurka.

“

Ordu txikitan, lanetik aterata, gauez aritu ziren Kañamarestarren etxean arpanean entrenatzen ”

Hasteko, 80 kiloko harri bolari 80 altxaldi eman zizkioten. Aldeak txikiak izan ziren lehenengo proba amaitzean, 20 segundo eskas nafarren alde. 140 kiloko txingak eskutan eramanez 20 plazako lana zuten gero, eta aldea estu mantendu zen. Hirugarrenik, 50 kiloko barrari 50 altxaldi (bi kolpetan). Ousmanek erakustaldia eman zuen

proba honetan, baina indarrak ahul zituzten eta minutu bateko aldearekin hasi zuten nafarrek azken lana, kanaerdiko enberrari 15 mozte egin beharra.

Hemen egin zuen aldeak gora nabarmen. Indarra gorde zuten nafarrek eta erritmo onean aritu ziren hasi eta buka. Ez, ordea, bizkaitarrak. Bete egin ziren eta indarririk gabe iritsi ziren trontzara, aldeak gora egiten zuen mozte bakoitzeko.

Azkenik, 25 minutu eta 27 segundoko denboran amaitu zuten nafarrek, eta amaitu ezinik utzi zuten bizkaitarrek, oraindik 7 bat mozte faltan zituztela. Txapela beraz, nafarrentzat.

Giro aparta izan zen pilotalekuan, ikuskizun politaz gozatzeko aukera izan genuen eta txapela bertan geratu zen, Nafarroan.



Xabier Urrutia 70 kilo esku bakoitzean eramaten ▲



Bikote nafarra, desafioa irabazteko gutxi falta zitzaizela ▲



Kastoreak

Kastoreak Basaburua ibaira iritsi dira

Lehenengo aldiz detektatu da kastorea eskualdean. Basaburua ibaia Udabeko presara iritsi aurretik, bazterreko dozena bat zuhaitz kastoreek zulatuta ikusten ahal dira.

Denbora kontua zen. 2017an Iruñean antzeman zituzten kastoreak, ia ehun zuhaitz zulatu baitzituzten. Badira espezie inbasoreen artean



▲ Basaburua ibai ondoko zuhaitz bat

sartzen dituztenak, baina ez da hala, XVII. mendera arte ugari zen kastore europarra (castor fiber) gurean. Ehiza masiboaren ondorioz, Iberiar penintsulatik desagertu egin zen, eta Europa osoan desagertzekotan egon zen (1.200 burubaino ezzirengaritzen).

1922an Suediako gobernuak kastoreak birpopulatzeari ekin zion, eta hala egin zen Europako herrialde gehienetan. Espainian ez zen halakorik egin; eta, 2003an, Belgikako talde ekologista batek 18 kastore sartu zituen modu ilegalean. Martzilla ondoan, Aragoi ibaian izan zen, eta 2005ean Ebron detektatu zituzten. Ordutik zabaltzera jo dute, eta Arga, Ega eta beste hainbat ibaitan ikusi dira.

Eskualdean haien arrastoak aurkitu diren lehen aldia da hau. Dozena bat zuhaitz zulatu dituzte, baina ez dute kalte larriarik sortu. Oro har eraso dituzten zuhaitzak lodiak badira ere, enbor estu bati ere eraso egin eta bota egin dute. Hala ere, kastoreak ez du zertan kaltegarria izan, eta babestutako espeziea da gainera. Ikusiko dugu zein garapen izaten duten aurrerantzean.

“

Dozena bat zuhaitz eraso egin diete kastoreek

”



▲ Kastoreek botatako zuhaitz txiki bat

Zorionak



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Zorionak Aurkitu

2018ko azaroa

Gure alderdian, azaroan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

Guk dakigula, azaroan ez zen jaiotzarik izan.

Ezkontzak:

Azaroan ez zen ezkontzarik izan gure herrietan.

Heriotzak:

ATETZ Aroztegi

Natalia Sanzberro Elizagoien, **Arozte-
giko bordako** etxeoandrea, azaroaren
27an hil zen.



▲ Natalia Sanzberro

ODIETA Gelbentzu

Teresa Etulain Orrio, **Bentako** etxeoan-
dre zaharra, azaroaren 24an hil zen.



▲ Teresa Etulain

Erripa

Benita Zarrantz Aginaga, **Karakoetxeko**
alaba, azaroaren 13an zendu zen.



▲ Benita Zarrantz

ULTZAMA Auza

Francisco Landa Iribarren, **Alborneko**
nagusia, azaroaren 25ean hil zen.

Auza

Maritxu Beratsain Arribillaga, **Malleneko**
alaba, azaroaren 29an zendu zen.



▲ Maritxu Beratsain

“
Gure oroimenean
izanen zarete
”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



